

Ezetzta ezetz



ANUNTXI ARANA
ANTROPOLOGOA

Aurtengo udak, beroa ekarriko duen arren, ez du aurrekoen itxura bera izango, ekainetik irailera arte ez dugu euskal irrati-telebistetan entzungo nonahi eta noiznahi “jaia lehertu dela”. Agian, berri horien hutsunea hemengo eta munduko informazio interesgarriez beteko digute.

Hargatik, ez dira eten egingo besta giroan gertatu ohi diren eraso sexistak, eta beharrezkoak izango dira berriz ere haien aurkako kanpainak. Holakoetan erabiltzen den slogan bat aipatuko dut, zehazkiago euskaraz hartzen duen forma. Eskumenik ez dudan arloan sartuko naiz –barkatu eragozpenak–; jakina da euskaldun guztien baitan filologo (izan nahi duen) bat ezkututzen dela, eta horrek harapatu nau, baina Euskaltzaindiko adituekin lehiatzeko inolako asmorik gabe.

Hasieratik hasteko, erdarara jo behar aldi honetan ere, delako slogana hortik heldu baitzaigu: “*No is no*”, “*No es no*”, “*Non c’est non*”. Laburra, zorrotza eta ongi pentsatua, baina ez euskaraz pentsatua. Eta euskarara ekartzeko orduan zalantzak badira, orain arte ez da forma adostu batera iritsi eta denetarik entzuten da.

Harrigarriena hauxe izan da, iaz entzuna: “Ez da ez”. Itsusia, ezta? Horren ondoan dozena erdi aldaera bederen

badira: “Ez beti da ez”; “Ez, ezetz da”; “Ezetz da ezetz”; “Ezetzta beti Ezetzta”; “Ezetzkoa beti da ezetz”; “Ezetzta beti da ezetz”; “Ezetzta beti ezetz”...

Azken bi hauek, segur aski hobere-nak, Altsasuko *Guaixe* aldizkarian eta Arrigorriagako Madalenetan erabili dituzte besteak beste, euskarak duen forma zolia eta oso ezaguna baliatuz, ondoko adibideetan azaltzen dena: “Hitza hitz”, “Txoria txori”, “Joanak joan”, “Deabrua deabru”, “Gizona gizon, katua mixon”, “Neskato zaudenean, etxe ona edo txarra, nagusia nagusi”, “Egia egi, ogia ogi, ardaa arda, bi ta bi lau”, “Erregea errege” eta, abestiak dioena, “Basta ederragatik, asto duk astua”.

Hizkuntza gaietan dudak sortzen direnean, molde zaharrei begira aurkitzen dira irtenbideak, haiek ez dute herratzen, ez dute adierazgarritasun vs zuzentasun dilema jasaten. Garai batean oso isekatua zen jatorrismoak ez du gaur egungo euskararen kalte handiagooa egingo lehortean erauntsi on batek baino. Tradizioaren arabera “Ezetzta ezetz” dateke, naski, euskarazko formula onena. Gero, apaintzeko orduan, nor bere hautua. Eta garrantzitsuena, hitz performatiboa izan dadila, eta aurtengo uda egundainoko dibertigarriena izango al da, jaiekin edo gabe. ●

Dantzarik gabe



UXUE APAOLAZA
IDAZLEA

Titularrek zioten hirugarren fasean gaueko dantzalekuak eta tabernak ireki ahal izango zirela, baina dantzarik gabe. Eta dantzatzeke asmorik ez bazenuen ere, baieztapen horrek beste guztia ekarri dizu gogora; distantziak, nahigabe hurbiltzeko beldurra, bestea ez mintzeko, noski... eta han-hemenka itxi dituzten *taberna* klandestinoak.

Ez dago taberna bateko maitasunaren beroa bezalakorik (*no hay como el calor del amor en un bar*), kantatzen zuen Gabinete Caligarik. Ezezagunen eskuak estutzea, esku ahurrean kili-kiliak egitea, aurpegiei eskuzko markoak jartztea, listua partekatzea... arriskutsua da

orain, momentuz... Tabernako maitasunak ikusmen lausotua dauka (eta garai batean kezko hodeiek babesten zuten) eta, maiz, ez du izen-abizenik ere uzten gure memorian, ezta telefono zenbaki bat ere... nola abisatu positibo eman duzula?

Listuaren bidez asma daiteke zer edan duen besteak, garagardoa edo zer-bait gozoagoa, kalimotxoa, erretzailea den, agian mihia apur bat anesthesiatu dion hautsen bat ibili den bere hodieta barna... Bekatu asko izango dira.

Kasetearen garaikoak dira hitz horiek. Baina oraindik ez dago taberna bateko maitasunaren beroa bezalakorik. ●